



**Arartekoaren 2018S-1326-16 Ebazpena, 2018ko urtarrilaren 10koa. Honen bidez Gernika-Lumoko Udalari iradokitzen zaio neurri egokiak har ditzala ostalaritza-establezimendu batek eragindako balizko irregulartasunak inguruko auzokoei eragiten ari lekizkiekeen kalteak ekiditeko.**

### Aurrekariak

Gernika-Lumoko auzotar batek salatu zuen udalak ez zuela esku hartzen Ospa izeneko ostalaritza-establezimenduak, bere bizilekuaren azpian dagoenak, zarategatik eragindako eragozpen etengabeen aurrean.

Zehazki, adierazi zuen jasanezinak direla jarduera horrek lokalaren musika ozenagatik eta ixteko ordutegia ez betetzeagatik sortzen dituen zarategatik eragozpenak. Bestalde, diotenez, batzuetan musika ekitaldiak egiten dituzte gaueko ordutegian, baita goizeko 2:00etan ere.

Auzotar horrek adierazi zuenez, zeukaten zarata arazo larriari irtenbide egokia aurkitzeko hainbat salaketa aurkeztu dute udaletxean 2015etik, eta ez dute horri buruzko erantzunik ez irtenbiderik jaso.

Arartekoak erreklamazioa izapidetzeko onartu du eta gestio ugari egin ditu Gernika-Lumoko Udalari eskatutako informazioa biltzeko, udalak aipatutako establezimenduari egindako jarraipenaren berri izateko.

### Gogoetak

Egindako izapideei erantzute aldera, Gernika-Lumoko Udalak txostena bidali berri digu, Alkatetzak sinatuta. Hau dio txostenak:





*Jaunak (...) Arartekoarei aurkeztu zion kexari lotutako espedientea (erreferentzia: 1326/2016/QC) dago abian, bere etxe azpian kokatuta dagoen Ospa Tabernak sarritan sortzen dituen neke eta zarantengatiko espedientea hain zuzen.*

*Arartekoak eskaera egin dio Udalari aipatu establezimenduari buruzko datuen inguruan informatzeko:*

*Lehena: azken hilabeteetan establezimendu horretan orientazio aldaketarik egon den. Jarduerarako instalakuntza eta irekiera lizentziak dituen edota, gutxienez, jarduera egitasmoa aurkeztu den. Eskatzen du jarduerari buruzko kalifikazio-txostenaren eta aipatu lizentziak emateagatiko alkatezaren dekretuen kopia bana:*

*Ospa Tabernak badu jarduera lizentzia eta baita irekierako ere, hurrengo ekintza administratiboen bitartez lortuak:*

- Alkatetzak 1990k uztailearen 23ko Dekretuaren bitartez, (...) lizentzia jarduera eman zien bidezko neurri zuzentzaileak gehituz, Señorío de Vizcaya kaleko (egungo Juan Calzada kalea) 16 zk.n dagoen lonjako tabernaren jarduerarako.*
- Alkatetzaren 1990eko abuztuaren 9ko Dekretuz, behin-betiko jarduera lizentzia eman zion Udalak tabernarako.*

*Ordutik ona, establezimendu horretan ez da aldaketarik izan.*

*Oraintsu, 2017ko abuztuan, jardueraren titularrak eskaera egin zuen obra lizentziarako, lokalaren sarrera lekuan eraberritze lanak egitearren. Obra hori, lokalerako sarrera lekuan egon-leku bereiztu bat egitean datza. Dena dela, Udalak espediente horren tramitazioa etetea erabaki du, 213/2012 Dekretuaren (eta ondorengo lege-aldaketak kontuan) arabera zarata mugak betetzen diren zurituko lukeen proiektua aurkeztu arte.*

*Bigarrena: Jardueraren garapen egokirako finkaturiko baldintzak eta neurri zuzentzaileak betetzen diren eta soinu-ekipoetarako bidezko baimena izan eta indarreango legediaren arabera, besteak beste, eskatzen den soinu-mugagailua instalatuta dagoen:*





*Gaur egun, (...) jaunak aurkeztutako jarraiko salaketen aurrean, Gernika-Lumoko Udaleko Bulego Teknikoak erabaki du jardueraren titularrari eskatzea soinu neurketa bat egitea, ENAC erakundeak egiaztatutako laborategi batek egina. Lortutako emaitzen arabera, neurri zuzentzaileak ezarriko zaizkio zarata mugak ez gainditzeko, Euskal Autonomia Elkarteko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua eta honen gainerakoak kontuan.*

*Bestalde, esan behar da Udaleko teknikariak ikuskapen bisitak egin dituela. Egindako txostenen emaitzak eskuragarri daude jaun/andre horrek kontsultatu nahi baditu.*

*Hirugarrena: Establezimenduko titularrari zigorrik tramitatu zaion izteko ordutegia ez betetzeagatik edo beste arrazoiren batengatik:*

*Ohartarazpenak bidali zitzaizkion 2015ean (irteera zk. 2015-1306) eta 2016an (irteera zk. 2016/1262), jakinaraziz establezimenduak daukan lizentziak ez diola baimenik ematen zuzeneko ekitaldiak edo espektakuloak eskaintzeko, bera egiten ari zen moduan.*

*2016ko maiatzean, zigor espedienteari hasiera eman zitzaion alkatetzako 2016/134 Dekretuaren bitartez, izteko ordutegia ez betetzeagatik, eta interesatuak aurkeztutako errekurtsua ondoren ohartarazpena egin zitzaion.*

*Era berean, 2016ko irailean abian jarri zen zigor espediente bat Terraza eta mahaitxoak arautzen dituen Udal Ordenantza ez betetzeagatik, Alkatetzako 2016/646 Dekretua bitarteko. Zigor espediente hori bukatu egin zen zigortuak eskatzen zitzaiona bete zuelako.*

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Gernika-Lumoko Udalarari honako gomendio hau egiten zaio:





## Iradokizuna

Arartekoak ikusi du eskatutako informazioa jasotzeko atzerapenak oztopatu egin duela bere eskumenak behar diren bizkortasun era eraginkortasunez betetzea, kexa honen gaiagatik. Hori esanda, arestian kopiatutako txostena ikusita, Arartekoaren ustez Gernika-Lumoko Udala ingurumen-araudian xedatutako kontrol-neurriak betetzen ari da, haien artean, establezimendu horren isolamendu akustikoa eta erasandako auzoengan eragin lezakeen balizko hots-eragina egiaztatzea.

Nolanahi ere, Arartekoaren ustez, jarduerak eragiten zituen zarata-eragozpen larriengatik udal agintarien aurrean aurkeztutako lehen salaketak aurkeztu zirenetik igarotako denbora luzea dela-eta, Gernika-Lumoko Udalak baloratu behar luke eskatutako probak egin arte behin-behineko edo prebentzioko neurri egokiak hartzeko aukera, *abenduaren 23ko 10/2015 Legeak, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerenak, 2016ko urtarrilaren 7an EHAAn argitaratu zenak*, 64. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hori guztia, jarduerak sortutako balizko irregulartasunak inguruko auzokoei eragiten ari lekizkiekeen kalteak ekiditeko.

Halaber, gogoratu behar da lege-testu beraren 31. artikulua xedatzen duela establezimenduek ezingo dutela kontzerturik edo noizean behingo aisialdiko jarduerarik egin lehenago derrigorrezko baimena lortu gabe. Baimen horretan ezarriko dira jarduera egin bitartean bete beharko diren baldintza teknikoak eta segurtasunekoak.

Azkenik, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du Gernika-Lumoko Udalari gogoratzea jarduera horrek arauz ezarritako ordutegiak betetzen dituela ziurtatu behar duela.

